

Memoriaren zirrikituak

AHAZTEN DIREN GAUZAK

Egilea: Aritz Gorrotxategi.
Generoa: Narratiba.
Argitaletxea: Erein
Orrialdeak: 136.
Prezioa: 15 euro.



** JAVIER ROJO

Memoriaren zirrikituak bitxiak dira. Batzuetan buruan beti izan diren oroitzapenak desagertzen dira, eta haien ordez hutsunea besterik ez dugu topatzen. Badakigu zerbait zegoela hor eta ia-ia gogoratu ahal dugula iruditzen zaigu, baina ezinezkoa da, oroitzapenak bizitza propioa baitu eta bere nahian bere gaina baita. Besteetan, oroitzapena ez da indibiduala, eta gizarte osoa amnesia moduko batean galtzen dela dirudi, historiak irakatsia alde batera utzirik.

Aritz Gorrotxategiren idazlan honetan, 'Ahazten diren gauzak' izena duen narrazio liburuan, horretaz guztiaz ari da. Oroimen mota desberdinak elkartzen dira hemengo narrazioetan. Batzuetan norbanakoari dagozkion istorioak topatzen ditugu. Eta kasu horretan ikus dezakegu nola pertsona baten oroimena, adibidez, poliki-poliki desgaiten doan, alzheimerren ondo-

riozkoa dirudien prozesu endekatzaileraren bidez. Gizakia neurri handian oroitzen duena ere badelarik, haren iraganeko pasarteak ezabatzen diren neurrian, gizakiaren identitatea jota geratzen da.


Besteetan ahazten dena historia bera da, iragan kolektiboa, talde moduan zer izan garen adierazten diguna. Honetan ere ahazteak identitatea galtzea ekar dezake, baina are garrantzitsuagoa dena, historia ahaztean historia bera errepikatzeke zorian geratzen da, latinez esaten zen esakune hartatik ondorioztatzen zena konplutuz. Talde moduan identitatea galtzeaz gain, gizatasuna ere bide bazterrean gera daiteke, besteekiko ikuspegi gizatiarra kamustuta.

Eta bukatzeko, oroitzea asma-tzearekin ere pareka daiteke, eta inoiz gertatu ez diren gauzak gogortzera hel daiteke gizakia. Aritz Gorrotxategiren liburuan topatzen ditugun narrazioetan horrelako aukerak aipatzen dira. Gai orokorra alde batera utzita istorio hauetan gehien nabarmentzen dena, nire ustez, emakumezkoen ematen zaien tokia da. Idazleak askotan erdigunean, protagonista moduan eta narratzailearen pape-rean ere, emakumeak jarri ditu. Oroimenaz aritzen den liburua izanik, planteamendu hau ahaztura historikoa nolabait gainditzeko ahalegintzat ere hartu behar da, eta bazterrean geratutakoen ahotsa errekueratu nahi izan da isildutakoa lehen planora hurbilduz.

El prodigioso violinista que parecía un niño

LA HISTORIA DEL PRODIGIOSO YERZHÁN

Autor: Hamid Ismailov.
Género: Novela.
Editorial: Acantilado.
Páginas: 128.
Precio: 14 euros.



El escenario de esta novela se sitúa en un ferrocarril que recorre la infinita estepa de Kazajistán y, en una de las paradas que hace el tren en un remoto apeadero se fija un viajero en un niño que sube a bordo interpretando al violín, magistralmente, una de las danzas húngaras de Brahms. No obstante, dicho pasajero descubre que el violinista de tan pueril apariencia es, en realidad, un hombre de veintisiete años. Así comienza y sigue el relato de la fabulosa historia de Yerzhán, una parábola sobre las secuelas de la Guerra Fría en la antigua Unión Soviética, pero también un canto a todas las cosas que ni siquiera los actos más devastadores e insensatos de la humanidad lograron destruir. Una historia de tonos poéticos de gran calidad. S.A.

Jesús Galíndez según Vázquez Montalbán

GALÍNDEZ

Autor: Manuel Vázquez Montalbán.
Género: Novela.
Editorial: Anagrama.
Páginas: 440.
Precio: 20,90 euros.

Reedición de una gran publicada en 1990. Cuenta de Jesús Galíndez, un personaje muy conocido sobre ambiente madrileño de la civil española y de sus relaciones estrechas con el autor de la República Dominicana Rafael Leónidas Trujillo secuestrado y desaparecido en Nueva York, dicese que a dicha República Dominicana donde Trujillo se ensañó con la persona. La historia no es de los mejores textos de su pluma, dentro de la corriente literaria donde galangan varios géneros. S.